Ver en navegador




# Informazio Buletin Ofiziala

2025eko apirila

---




+ Info

## 2024ko urteko Memoria eta 2025eko Jardueren Txostena

Eskuragarri dago hemen getxoenpresa.com gure elkartearen **Memoria**, 2024an egin ditugun **ekintzak** eta horietan parte hartu duten negozioak zehazten dituena, bai eta **2025ean** egin nahi ditugun **jardueren txostena** ere.

## Getxoko Azoka

**Getxoko Azokak,** Algortako Hornidura Merkatua kudeatzen duen sozietateak, **frutategi** bat instalatzeko **postu libre bat** eskaintzen du merkatuan. Interesatuta bazaude idatzi helbide honetara: **info@getxoenpresa.com**, edo deitu telefono honetara: 944 30 55 00.



+ info

elika

## Elikadurarako eta ostalaritzarako prestakuntza-saioak

Getxo Enpresak **bi prestakuntza**- eta **sentsibilizazio**-saio antolatu ditu elikagai-saltokietarako eta ostalaritza-negozioetarako, elikagaiak **alferrik ez galtzen laguntzeko** eta, halakorik

+ Info

gertatuz gero, **soberakin horiek hobeto kudeatzeko, negozioaren emaitza ekonomikoa hobetzeko.**

## Elkartekideen artean kontsumoa sustatzea

**Elkartekideen artean kontsumoa sustatzeko**, elkartearen negozioek elkartutako beste negozio batzuei (titularrak + langileak) **deskontuak eta/edo sustapenak eskaintzea** proposatzen da.
Deskontuen eta sustapenen sare honetako kide izatea interesatzen bazaizu, bidali mezu bat helbide honetara: info@getxoenpresa.com.




+info

## Lehiakortasuna hobetzeko programa

Datorren maiatzaren 5ean irekiko da **Innobideak-Kudeabide 2025 programan** izena emateko epea. **5 eta 50 langile artean dituzten** eta laguntza arautzen duten jarduera-sektore batzuetako kide diren Bizkaiko enpresei zuzendutako programa da eta **lehiakortasuna hobetzea du helburu.** Interesa duten negozioei laguntza-eskaera izapidetzen diegu.




+ info

## Batuz ticket bai sistema

Bizkaiko Foru Ogasunak "Batuz-TicketBai sisteman" nahitaez sartu beharreko **datei eusten** die, **zergadun motaren** eta egiten duten **jardueraren** arabera www.getxoenpresa.com webgunean informazio gehiago dago araudia osoa ezagutzeko.

+ info

---

Beste Informazio Buletinak

---

[www.getxoenpresa.com](http://www.getxoenpresa.com)
info@getxoenpresa.com

Arene Kalea, 22, 48991 Getxo, Bizkaia
Política de Privacidad

